

Politika eta umorea

Joxean Agirre

Tarteka algararen bat eginez irakurri dut Slavoj Zizeken azken liburua, “Mis chistes, mi filosofía”. Ez da beste munduko lana, baina gairik sakonenak txiste absurdoen eta askotan arruntenen bidez ager daitezkeela frogatzeko balio du, esloveniarra mutila baita Lacan, Hegel edo Freuden ideia korapilatsuena edo ekonomiaren edo politikaren zokorik ilunenak arintasunez argitzen, txisteak erabiltzen ez dituenean musikaren edo zinemaren historiatik edo telebistatik, oro har herri kulturatik, hartutako pasadizoak tartekatzen baititu.

Algaratxoak eginez Zizeken lana irakurtzen ari nintzen bitartean pentsatzen nuen filosoforik trinkoenak txisteen bidez esplikatzea posible baldin bada, zergatik ez ote duten gure politiko profesionalek umore pitin bat erabiliko gainean dugun hauteskunde kanpainan fiskalitateaz, mugikortasunaz, Euskal Bideaz edo estatutu

berriaz esan behar dituztenak esateko eta, txisteak asmatzeko gai ez badira, zergatik ez duten gutxienez noizean behin kontakizunen bat tartekatuko, formularik sinpleenak erabiliz nahi bada, «gaur ohean emazteak esan dit...» edo «alabaren kua-drillako bati entzun diot esaten...», entzuleari arnasbidea emate aldera.

Umorerik gabe ezin dira literatura eta arte garaikidea ulertu. Picasso karikatura da eta karikaturak dira Giacomettiren eskulturak. Karikatura dira Svevoren Zeno Contini, Becketten Godot edo Bretchen dramak eta Saizarbitoriaren pertsonaia handienak. Ez dakit zergatik politika bilakatu den horren zurruna eta solemnea, hain zurruna non Arraizek behingoz xake matearen txistea egin eta auzitara eraman nahi zuten.

Norbaitek pentsa dezake hegazkinean goazenean ez diogula pilotuari originala eta ziragarria izatea eskatzen, hegazkina zuzen samar eramaten jakitea baizik, eta,

ondorioz, politiko bati ere zintzoa eta zuzena izatea exijitzen diogula, besterik ez.

Hori egia da, baina barrea gauza ederra da. Kunderak nobelari buruzko bere lanean «gizakiak pentsatu egiten du, Jainkoak barre», idatzi zuen. Otegik ere esan zuen irribarreari buruzko esaldi ilun samar bat berriki. Eta egia esan politikan irribarre batekin konforma gaitezke eta Denis Itxasok erraustegiari buruz esaten dituenak entzun edo Bidegiko auzian jeltzaleen mututasunaren aurrean niri bederen irribarrea zabaltzen zait.

Zizeken txiste batekin bukatu nahi nuen, baina gehienak luzeak dira. Norbaitek liburua eskura ikusten badu, irakurri dezala 121. orrian datorren XIV. mendeko mongoliar okupatzailearen eta errusiar nekazariaren artekoa. Zakar samara da liburuko asko bezala, baina ezkerraren zereginaz ondorio ezin interesgarriagoak ateratzeko balio du. •

Bagare langilea

Saioa Iraola

Urtero bezala, goizean lasai jaiki eta 12:00etarako herriko plazan nintzen, bandera moreak bizkarrean eta aldarrikapen hitzez betetako “txinoak” eskuan nituela. Inguruko herrietako kide langileak elkartzen hasi ginen pixkanaka, pausoz pauso kaleak aldarrikapenez, haserre oihuz eta aldaketaren beharraz betetzeko asmoz. Herria azkar batean zeharkatu, eta udaletxe plazako arkupeetara iritsi ginen. Iritsi da *meeting*-aren garaia. Manifestariak adi geunden, txistorra eta gazta pintxoak alboko mahaian zain genituen bitartean. Eskualdeko langileen ordezkariak hasi dira: «gaur langileok borrokatzeko eguna dugu», «... es-

kualdean itxi duten lantegiko langileei elkartasuna...», «langabetuak, gazteak...», «prekariatatearen kontra gaude...», «sindikalismoa XXI. mendean emandako aldaketei egokitzeko beharra ikusten dugu...».

Zain egon nintzen, baina aurtengo maiatzaren 1eko hitz jarioan ez gintuzten aipatu; ez emakume langileak, ez etxeko langileak, ez migrante langileak, ez prekarioetan prekarioenak. Langile izatea, langile identitatearen esentzia purua fabrikako gizon zuria izatea balitz bezala zokoratu gintuzten diskurtso ofizial batzuetatik, XX. mendeko langile klasearen imajinario, estereotipo eta subjektua gogoan eta ez XXI. mendekoa, alegia. Ohartu naiz, ohar-

tu gara oraindik ere gure kide sindikalista askoren imajinarioan, diskurtsoetan eta sortzen diren estrategietan oinarri hori dutela, eta horrek kezkatu egiten nau. XXI. mendeko langile klasea ez baita zena, da dena.

Ez gara “Il Quarto Stato”, Giuseppe Pellizza da Volpedok 1901ean sortutako margolaneko langile klasea, ez gara gizon mendebaldar langilez osatutako subjektu homogeneoa soilik. Gehiago gara, izan ginenak –aitortzarik gabeak– eta garenak elkarrekin, bagera. Bagara langileak etxean, kalean, fabrikan, baratzean, ohean, auzoan... Bagare, bagera, bagire eta bagara langile. •